

Euskarazko literatura Polonian ezagutzera emateko parada eskaintzen dute azken 30 urteetan euskara eta polonieraren artean egindako itzulpenek eta Posnaniako Adam Mickiewicz Unibertsitateko Euskara Irakurletzak 2011. urtean egindako lantegia jardun horren bultzatzaile nagusia izan da. Hamarkada bat beranduago, lantegia ez, baina ikastaro apal bat eskaini zaio itzulpengintzari, ikuspuntu teoriko-praktikoa izan duena eta hasitako bideari jarraikortasuna emateko bokazioa duena.

Giltza-hitzak: Itzulpengintza. Poloniera. Euskal-literatura.

Las traducciones realizadas en los últimos 30 años entre el euskera y el polaco permiten dar a conocer la literatura en euskera en Polonia y el taller de Lectura de Euskera de la Universidad Adam Mickiewicz de Posnania realizado en 2011 ha sido el principal impulsor de esta actividad. Una década más tarde, el taller no, pero se ha dedicado a la traducción un curso modesto, con un enfoque teórico-práctico y con vocación de dar continuidad al camino emprendido.

Palabras clave: traducción. Polaco. Literatura vasca.

Les traductions réalisées au cours des 30 dernières années entre l'euskera et le polonais ont permis de sensibiliser à la littérature basque en Pologne, et l'atelier de lecture en euskera à l'université Adam Mickiewicz de Posnanie en 2011 a été le principal moteur de cette activité. Une décennie plus tard, et ne concernant pas l'atelier, un cours modeste a été programmé sur la traduction, avec une approche théorique-pratique et la vocation de donner suite à ce qui avait été entrepris.

Mots clés : traduction. Polonais. Littérature basque.

Euskara eta polonieraren arteko itzulpengintza atzo eta gaur. Estrategiak eta erronkak

(Basque-Polish translation past and present: strategies and challenges)

Zarraua Isasi-Isasmendi, Esther

Posnaniako Adam Mickiewicz Unibertsitatea. Wydział Neofilologii, Instytut Filologii Romańskiej, al.
Niepodległości 4, Collegium Novum, 61-784 Poznań, Polonia
estzar1@amu.edu.pl

Jaso: 2021-11-04
Onartua: 2022-05-26

1 Aurrekariak

2020-2021 ikasturte akademikoan itzulpengintza irakastea egokitu zitzaidan Etxepare Institutuaren izenean euskara irakurle naizen Poloniako Posnania hiriko¹ Adam Mickiewicz Unibertsitateko (aurrerantzean AMU) Etnolinguistika ikasketetako 3. mailako ikasle bakarrari.

Nire bigarren urtea zen Polonian eta oraindik ez nuen poloniera² menperatzen, hobeto esan, apur bat bakarrik nekien polonieraz, nahiz eta ahalegina eta denbora erruz eskaini hizkuntza ikasteari. Han ageri zen, baina, nire egitekoen artean 30 orduko itzulpengintza ikastaroa.

Ikasleak ere, prestua izan arren, hirugarren urtea baino ez zeraman euskara ikasten, beste jarduera askoren artean, gainera. Dena den, bere alde zegoen ingelesa eta alemanieraz gain, daniera eta gaztelera ere ezagutzea.

Lanari ekin nion, beraz, eta hilabete batzuetako hausnarketa eta bilaketan ondoren, azalpen honen gorputza izango den proiektua burutu nuen, nire ikasle Barbararekin batera itzulpengintza eskola orduetan praktikan jarri nuena.

Lan honen ardatza izango den itzulpengintza esperientzia hau aurkeztu baino lehen, merezi du euskaratik polonierara itzulitako literatura lanen aurkezpen txiki bat egitea, halabeharrez txikia izango dena, haatik luzeagoa alderantzizko norabidean egindakoa baino, jakina.

1.1. Euskara eta polonieraren arteko itzulpenak gaur arte

Ezin esan asko direnik polonieraz euskal idazleen lanekin egin diren argitalpenak. Autoreei erreparatzen badiegu, guk egindako bilaketan aurkitu ditugun itzulpenetatik hiru Bernardo Atxagaren eleberriak dira, hurrenez hurren, *Obabakoak* (1988), *Gizona bere bakardadean* (1993) eta *Soinujolearen semea* (2003)³. Harkaitz Canoren lanetatik bat irakur daiteke polonieraz, hain zuzen ere, *Norbait dabil sute eskaileran* (2001). Aukera dago halaber Rikardo Arregi Díaz de Herediaren *Kartografia* (1998) eta Beñat Etxepareren *Linguae Vasconium Primitiae* (1545) eslaviar hizkuntza honetan irakurtzeko, baita Mariasun Landaren *Elefante txori-bihotza* (2001). Baina, akabo! Horiek dira, zuzen baldin bagabiltza, polonieratutako obra oso bakarrak.


¹ *Poznań* -Euskaltzaindiak EODaren bidez arautu bezala euskaraz *Posnania*- Poloniako mendebaldean dagoen hiria da.

² Poloniera eslaviarren taldeko flexio hizkuntza da, perpausaren egiturari dagokionean SVO tankerakoa. Gramatikaren ikuspuntutik eta izen sintagmari gagozkiolarik, aipagarria da ez dagoela artikulurik eta hiru generotako izenak daudela singularrean (maskulinoa, femeninoa eta neutroa) eta bi pluralean (gizatiarra eta ez gizatiarra). Adjektiboak izenarekin komunztadura egiten du, morfemak genero, zenbaki eta kasuaren arabera hautatuz. Izan ere, zazpi kasu ditu polonierak: nominatiboa, akusatiboa, genitiboa, instrumentala, lokatiboa, datiboa eta bokatiboa. Aditzaz den bezainbatean, bi aspektu daude, burutua eta ez burutua eta aldiari erreparatuz gero, orainaldia, iraganaldia eta geroaldia; moduak indikatiboa, agintera eta baldintza/subjuntiboa izan daitezke. Aditz jokatuetan subjektua eta aditzaren arteko komunztadura gertatzen da, bai pertsona, bai zenbaki, baita generoaren arabera.

³ Argitu beharra dago EIZIEk (Nor da Nor euskal itzulpengintzaren datu basean, <http://nordanor.eus>) *Obabakoak* eta *Soinujolearen semea* euskaratik polonierara itzulitako zerrandan jarri arren (ZNAK argitaletxeari egiten dio erreferentzia bi aldietan eta 2007 urtea ematen argitalpenen urtetzat), ez dugula inon beste argibiderik aurkitu, ez bada, ZNAK interneteko liburu-saltzaile bat dela baino.



Beste hiru argitalpen -Kasprzycki et al. (1992), Szofer eta Zawiszewski (2000) eta Sosnowska (2016) hurrenez hurren- jatorrizko sorkuntzaren zati bati dagozkio, hots, lehenengoa *Obabakoak* (1988) eleberraren atal batzuk, bigarrena Aldekoa (1993), Iturbe (1995) eta Sarrionandiari (1983) hartutako zenbait ipuin eta hirugarrena Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria* (1998) bildumaren lagin bat dira.



Bada beste egitasmo bat, gauden lekutik jakinmin eta miresmenez begiratzen dioguna, eta hori Posnaniako AMUn 2011n talde-lanean itzulitako euskal ipuinen bilduma da (Askoren artean, 2011). Proiektuaren koordinatzaileak orduan bertako euskara irakurlea zen Amaia Donés Mendia eta Bego Montorio itzultzailea izan ziren eta beraiek egin zuten ipuinen aukeraketa. Argitalpen honen bertute handietako bat -11 urte lehenago Posnaniaren bertan argia ikusi zuen liburuaren (Szofer, Zawiszewski, 2000) kasuan bezala- euskal literaturaren izen eta estilo anitzak erakustea da. Bi itzulpen lan horiei esker, arestian aipatutakoez gain, ondoko euskal idazleen sorkuntza irakur dezake polonierazko irakurleak: Arrate Egaña, Jon Martin Etxebeste, Julen Gabiria, Juan Garzia Garmendia, Lander Garro, Jon Gaztelumendi, Arantxa Iturbe, Koldo Izagirre, Karmele Jaio, Edorta Jimenez, Anjel Lertxundi, Jon Mirande,

Inazio Mujika Iraola, Eider Rodriguez, Ramon Saizarbitoria, Joseba Sarrionandia eta Arantxa Urretabizkaia.



Azkenik eta zerrenda hau amaitzeko, EIZIEk egindako itzulpen lantegien emaitzak daude. Batetik, “idazlea itzultzailearen lantegian” proiektuaren barruan burututako lanak eta *Senez* aldizkarian monografiko gisa kaleratu zirenak daude, hala Jokin Muñozekin egindakoa (2005), nola hiru urte beranduago Xabier Montoiarekin batera egin zena, 2011n Arantxa Iturberekin eta 2014an berriz Juan Kruz Igerabiderekin.

Era horretako beste esperientzia bat ere antolatu zuen EIZIEk 2016an, “deserria itzultzen” izenekoa eta itzuli beharreko euskal egilea oraingoan Arantxa Urretabizkaia izan zen, bere *Koaderno gorriaren* (1998) pasarte bat izan zelarik hautatua zeregin honetarako, lehen adierazi bezala.

Aipaturiko ekimenotan hainbat hizkuntzatarara itzuli ziren jatorrizko euskarazko lanak eta haietako bat poloniera izan zen.

Polonian ere egin da horrelako esperientziarik, hain zuzen ere 2019ko udazkenean *Opowiadanie* aldizkariaren 9. zenbakian Wroclawen ospatu zen nazioarteko narrazio jaialdiaren ekimenez polonierara itzulitako hainbat narrazio labur argitaratu ziren eta horien artean dago Alicja Jankowiak (lehen Alicja Wiącek) idatzitako *Lustro*, Karmele Jaioren *Ispilua* kontakizunaren itzulpena⁴.

Ezin aipatu gabe utzi, 2016an bertan Donostia eta Wroclaw hiri kulturalak egitasmoen inguruan Polonian argitaratu zen beste euskal narrazio baten itzulpena, Goiatz Labandibarren *Hala bazan... klixk!* (2016) kontakizunarena, alegia.

Azalpen labur honi amaiera emango diogu guk dakigula euskarara eroan diren polonierazko testuez hitz eginez. Sonia Kołaczek eta Amaia Apaulazaren artean Ryszard Kapuściński (1975) eta Olga Tokarczuk (2009) itzuli dituzte euskarara eta hurrenez hurren 2019an eta 2020an kaleratu dira liburuok. Gainera, Sonia Kołaczek, Joana Anders (lehen Janiszewska) eta Alicja Jankowiak, Amaia Donés eta Aiora Jakaren zuzenketekin, Maciej Wojtyśzek haurrentzako idatzitako *Bromba i inni* (1975) ipuin bildumatik bederatzita itzuli zituzten eta *Senez* 44an Aiora Jakak (2013) argitaratu zituen. 2016an, halaber, Magdalena Gazdak Wojciech Bonowiczen Poloniako bertso-ipuinen antologia (2016) euskarara itzuli zuen, aipaturiko Wrocław hiri kulturala proiektuaren baitan.

1.2. Kronologia

Euskaratik polonierarako lehen itzulpen ezaguna 1992koa da. Artur Kasprzycki, Teresa Sikora, Anna Sobolewska eta Hanna Żelaznak egin zuten, Krakovian argitaratu zen eta Bernardo Atxagaren *Obabakoak* (1988) eleberriaren zati bat da. Garai hartan laurak ziren Krakoviako Uniwersytet Jagiellońskiko ikasleak

⁴ Ipuina ez da euskaraz argitaratu, nahiz eta hori izan Jankowiak erabilitako bertsioa. Ingeleseko bertsio bat *Best European fiction 2017* (2016) argitalpenean agertu zen, eta gaztelerazkoa *No soy yo* liburuan (2022) argitaratu da.

Piotr Sawickiri ikasi diogunez⁵ eta itzulpen hau estreinekoa izan zen haientzat, 159 orrialdeko debuta, alajaina!

Honen argitara, ezin da ontzat hartu Joanna Markowskak *mysliodwazne-aziavera.blogspot.com* helbidean adierazten duena⁶, “*jest pierwszym opowiadaniem baskijskiej przetłumaczonym na język polski*”, hau da, Mariasun Landaren *Elefante txori-bihotza* (2001) polonierara itzultzen den lehen euskal kontakizuna dela. Ez lehena, ezta bigarrena ere, eta gainera lehenengoa baino 20 urte beranduagokoa, gero ikusiko dugun moduan (Kurosz, 2012).

Aipaturiko 1992ko lehenengo saiakera horren ondotik zortzi urte igaro ziren 2000. urtean Alicja Szofer eta Adam Zawiszewskik euskaratik zuzenean egindako itzulpenak argitara eman ziren arte.

2005ekoa da hurrengo lana, berriro ere Adam Zawiszewkiren eskutik datorkiguna eta EIZIEk antolatutako lantegien ondorio, zeinetan Jokin Muñozen *Hausturak* (2005) itzuli zen.

2007ko Bernardo Atxagaren *Obabakoak* (1988) eta *Soinujolearen semearen* (2003) itzulpenak ezin izan ditugu baieztatu lan hau amaitzeko orduan (ik. 3 oin-oharra).

2008an Joanna Janiszewskak Xabier Montoiaren *Irapuato: makurkeria nagusi* (2008) itzuli zuen, berriz ere EIZIEren eskutik.

Ostean, 2011n, Posnaniako AMUko euskara-ikasleen itzulpen saiakera gertatu zen. Amaia Donés eta Bego Montoriok gidatutako tailerrean euskal ipuinen itzulpenak egin zituzten ikasleek eta lan horren ondorio izan zen *Kontu-kontari. Opowiadania baskijskie* (Askoren artean, 2011) liburuaren argitalpena. Proiektuan parte hartu zuten izenak asko dira: Katarzyna Mirgos, Joanna Janiszewska, Paulina Bank, Sonia Kołaczek, Alicja Wiącek, Marta Kopińska, Magdalena Gazda, Natalia Stolarska eta Monika Czerny itzultzaile lanetan jardun ziren; eta Marta Buszkiewicz, Monika Glińska, Karolina Kononowicz, Monika Młodnicka eta Alicja Wiącek bera zuzentzaile gisa.

2011n bertan argitaratu zen *Senez 42* aldizkaria, Monika Czernyren *Aitarekin bidaian* (Iturbe, Intxaurrea, 2009) antzezlanaren itzulpenarekin.

2012an Weronika Kuroszek *Słoń o ptasim sercu* izenaz argitaratu zuen lehen aipatutako Mariasun Landaren *Elefante txori-bihotza* (2001).

2013an, AMUn Etxepareko irakurletzatik antolatutako beste ekitaldi baten ondorioz, Kołaczek, Anders eta Jankowiacek (Wiącek) Macjei Wojtyszeken ipuinak (1975) ekarri zituzten euskarara.


2014an EIZIEk Juan Kruz Igerabiderekin egindako tailerrean Monika Czernyk hartu zuen parte polonierarako itzultzaile lez.

⁵ SAWICKI P. (2009), Trydzieści lat, parę chwil- nie tylko w Krakowie. Glosa do portretu Jadwigi, *Studia iberystyczne*, 8, *Księga Pamiątkowa dedykowana Profesor Jadwidze Koniecznej-Twardzikowej* (29-38 or.), Krakovia. Orain arte itzulpen honi buruzko informazio gehiago lortu ez dugun arren, zantziek pentsarazten digute gaztelaniazko bertsioa erabili zela itzulpenerako.

⁶ MARKOWSKA, J., *Słoń o ptasim sercu, Mariasun Landa* (2012ko martxoaren 12a, asteartea). Non: Myśli odważne [linean]. [Kontsulta 2021eko urriaren 17an]. Berreskuratua: <http://mysliodwazne-aziavera.blogspot.com/2013/03/son-o-ptasim-sercu-mariasun-landa.html>

Urte bete geroago, 2015ean, etorri zen Dorota Krajewskaren *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) lehen euskarazko liburu argitaratuaren itzulpena polonierara.

Hurrengo urtearen emari oparoak euskarazko literaturaren polonierazko itzulpen gintzari azken bost urteetan emandako abiadaren bizkortzea ekar diezaiokeen, urte horretan, guk dakigula, bost argitalpen egin baitziren. Barbara Stawicka-Pireckak Rikardo Arregiren *Kartografia* (1998) eta Harkaitz Canoren *Norbait dabil sute eskaileran* (2001) ekarri zituen Poloniako irakurleentzat, biak ala biak gaztelania bitarteko hizkuntzatzat erabilita. Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorriaren* (1998) lagina ere urte hartan bertan itzuli zuen Katarzyna Sosnowskak⁷ eta Magdalena Gazdaren *I ja tam bylam... pstryk!* ere 2016koa da, baita itzultzaile berak euskarara ekarritako Bonowiczen Poloniako bertso-ipuinen (2016) antologia ere.



Katarzyna Sosnowska izan da 2019an Bernardo Atxagaren *Gizona bere bakardadean* itzuli duena⁸. Eta 2019koa da halaber, aurrerago aurkeztutako A. Jankowiaken *Karmele Jaioren* (2016) itzulpen laburra. 2019 eta 2020 urteek, bestalde, Apalauza eta Kołaczeken euskararako itzulpenak ekarri dituzte, aurreko atalean azaldu bezala.

2. Gure ikastaroaren egitasmoa

Egia esango badut, guri egokitutako itzulpen-ikastaroa emateko orduan oraindik ez nekien zein zen euskal itzulpen gintzak Polonian egindako ibilbidea, aurreko datuak beraz, gerora bildutakoak dira. Hemendik aurrera, 2021 urteko martxoa eta ekainaren artean egindako 30 orduko itzulpen esperientzia praktiko eta teorikoa aurkeztutako da, argitalpen honen helburuari egokitzeko komenigarriak iritzitako arloak azalduz; hemen eta han xehetasunak gehituz edo kenduz.

Helburuak:

Itzultzeko estrategien lanketa teorikoa eta praktikoa.

Euskaratik polonierara itzultitako hitz eta esapideen bilduma bat sortzea, estrategiaz estrategia sailkatuz.

⁷ Etxepare Institutua eta EIZI Eren artean antolatutako "Itzultzaile berriak" proiekturako bekari esker burututako lana.

⁸ Sosnowskak berak adierazitakoaren arabera, euskaratik lehenengo itzulpen honetarako gaztelaniazko eta alemanierazko bertsioak ere kontsultatu zituen.

Landuko diren gaitasunak:

Irakurketa ulerkorra.
Hausnarketa semantikoa, morfologikoa eta sintaktikoa.
Azterketa etimologikoa.
Hizkuntzen berezko izaera eta egituraren inguruko gogoeta.

Lortu nahi diren emaitzak:

Ikasleak itzultzeko teknikak ezagutzea.
Ikaslea itzultzeko teknikak erabiltzen trebatzea.

Ekintzaren deskribapena:

Itzultzeko teknika eta estrategien ezagutza teorikoa eta praktikoa eskutik joango dira ikastaro honetan. Horretarako, itzulpen-estrategiei lotutako kontzeptuak ulertzearekin batera, ezagutzak barneratzeko ariketa espezifikoak egingo dira, estrategiaz estrategia.

Unitate didaktiko hau sortzeko erabilitako oinarriko euskarriak Joana Loyo Cabezudoren *Itzulpen-estrategiak. Irizpide nagusiak* (2013) artikulua eta *euskaraz kontrolatuz* blogetik hartutako itzulpen-ariketak izan dira. Ariketok euskara eta gaztelaniaren arteko itzulpeneko adibideak direnez, polonierazko adibideekin osatuko ditugu ikasle-irakaslearen artean. Horrela, hainbat helburu beteko ditugu, batetik ikaslearen gaztelaniaren ezagutza aprobetxatuz, itzulpen-estrategia zehatzen adibideak lantzea; bestetik, ikasleak teknika horiek bere ama-hizkuntzan praktikan jartzea, horrela haiek erabiltzen ikasteko; eta amaitzeko, irakaskuntza eta ikerketarako material berriak sortzea, euskaratik polonierarako itzulpenen adibide zehatzekin lagin bat sortuz.

Azkenik, B1 mailako testu labur batzuk erabiliko dira bai euskaratik polonierara eta bai kontrako norabidean ere itzultzeko. Testuak narratiboak izango dira, biografia eta albisteen gisakoak. Jarduera honetan aurretik landutako teknikez hausnartzeaz gainera, erabili ere egingo dira.

3 Hastera goaz!

3.1. Lehenengo zatia: jakingai teorikoak

3.1.1. Mezuari zintzo eutsi

Oinarri teorikoak, esan bezala, Loyorengandik geureganatu ditugu. Aipatutako artikulua hasieran, itzulpena zer den eta nola egin behar den adierazten da eta geuk ere azalpen horiekin hasi genuen ikastaroa.

Itzulpena mezuak hizkuntza batetik (sorburu hizkuntza, SH) beste batera (xede-hizkuntza, XH) pasatzeko bidea da eta Loyok García Yebrari⁹ jarraituz ezaugarri hauek egozten dizkio:

⁹ Erreferentziarik gabe jatorrizko testuan.

- Abiapuntuko testuak dioen guztia esatea.
- Ez dioen ezer ez esatea.
- Esaten dena ahalik eta hizkera natural eta jatorrenean adieraztea.

Argitasuna, naturaltasuna eta arintasuna, horiexek dira itzultzailearen helburuak, edukia erraz eta arazorik gabe hartzailearengana helarazteko. Izan ere, itzultzaileak egokitu egin behar du XHra SHko testua. Esateko moduak moldatu behar ditu, Loyoren hitzak erabiliz, *“formulazioa borobildu, adieraziak argitu eta adierazpena modu orekatuan egin”*.

Ezin da besterik gabe hizkuntza batetik bestera kopiatu, jakina baita, hizkuntza bakoitzak berezkoak zaizkion eta besteengandik berezitzen dituen joskerak, erabilerak eta egitura propioak dituela.

Itzultzeko jarraitu beharreko urratsak zeintzuk diren ere argi uzten digu Joana Loyok artikuluan, hona hemen labur-labur agertuta:

- Jatorrizko testua ondo irakurri eta ulertu.
- Mezuaren hartzailea kontuan hartu.
- Sortzen dugun lehenengo testuak ez du zertan amaierakoa izan behar.
- Amaierako testuak ulergarria izan behar du eta, ahal den heinean, irakurtzeko erraza.

3.1.2. Mezuari kale egiteko arrazoiak

3.1.2.1. Adibide unibertsalak

Paco Lema itzultzaileak (2017) historian mezuari traizio egin dioten itzulpenen arrazoiak zerrendatzen ditu, hauek erlijiozkoak, politikoak, modari lotutakoak, zentsurak eragindakoak, gezurrezko itzulpenak edota testuaren ulermen okerraren kariaz burututakoak izan daitezkeela aipatuz.

Erljiozko itzulpen iruzurtien adibidetzat jartzen du Testamentu Zaharreko pasarte batekin egindakoa. Bertan hebreeraz agertzen zen “neska batek” haur bat ernaldu eta hartaz erdituko zela eta ume hura Jainkoaren semea izango zela (*Isaías 7, 14*). Aitzitik, testu zati hori grekerara itzulzearen arduradunek “neska”ren itzulpentzat “birjina” aukeratu zuten. Bai hebreeraz, bai grekeraz, hitz biek ala biek daukate “emakume gazte” esanahia, baina une hartatik aurrera, “birjina” hitza erabiltzearen konnotazio eta ondorioak oso bestelakoak izan ziren. Nahita ala nahigabe izan zen? Akatsa ala manipulazioa egin zuten itzultzaileek?

Arrazoi politikoetan oinarritutako itzulpen iruzurtiez edo itzultzaileen balizko zitalkeriaz diharduelarik, otomandar inperioan “dragoman handia”ren kargua zegoela diosku Lemak. Bere egitekoa zen kultur-bitartekari eta interpretari ofizialari zegozkion lanak aurrera eramatea. Stavrachi Aristarchi izan ei zen azken greziar dragomana, XIX. mendearen lehen laurdenean traizio egiteagatik urkatua izan zena, agintariek Greziako independentziako gerran errebeldeekin lankidetzan aritu izana leporatu eta gero. Al Mayal arabierazko interprete irakiarraren kasua ere argitara ematen da artikuluan honetan, 2004an atxilotu zutena, 2003ko Espainiako Inteligentziaren Zentro Nazionaleko zazpi kideren heriotza eragin zuen atentatuan laguntzearen salaketapean.

Modak ere eragin ditu itzulpen ez jatorrak. Berpizkundea eta XIX. mendearen amaiera bitartean, itzultzailearen lana zen jatorrizko testuak zuzendu eta hobetzea. Izan ere, XVII-XVIII. mendeetako Frantzia “eder desleial” izendatzen ziren sorkuntza lanok.

Zentsura eta nork bere buruari eragindako zentsuraz zer ez ote dakigu euskaldunok? Lemak Frankismoa dakargu gogora:

“Un buen ejemplo es la censura de traducciones literarias en la España franquista, donde durante cuarenta años la censura fue estricta y sistemática. Su objetivo era proteger la moral, la religión y el régimen, por lo que se censuraba y cortaba de raíz cualquier contenido que pudiera considerarse contrario a esos principios. No es de extrañar que esta censura llevase a la autocensura, ya que los traductores, editores y autores intentaban curarse en salud para evitar males mayores y represalias”.

Frankismoa baino askoz aurreragokoa da, baina, zentsura, Joan Mari Torrealdai (2000a) argi azaldu moduan:

“Aurretiazko zentsura ez da frankismoaren asmakizuna. Ez. Eliz jatorria du aurretiazko zentsurak. Inprimategia asmatu eta berehala ezarri zen, prebentziozko neurri gisa. Alejandro VI.a aita santuak liburuentzako aurretiazko zentsura zabaldu zuen, herrialde katoliko guztietan ezartzekoa, 1501eko ekainaren 1eko data daraman inprentako dekretuaren bidez. XVIII. mendera arte estatu gehienek indarrean izan zuten.

1502ko uztailaren 8ko arau baten bidez ezarri zuten Espainian Errege-erregina Katolikoek. Liburua egin edo beste erresumetatik ekarritakoa zabaldu aurretik lizentzia eskatzera behartzen zituen inprimatzaile guztiak. 1812ko Cadizko Gorteek deuseztatu arte indarrean izan zen. Fernando VII.ak berriz ezarri zuen, eta Sagastaren alderdi liberalak proposatuta ezabatu zen 1883an”.

Beste zenbaitetan, jendaurrean egiletza aitortu beharra ekiditeko, itzulpen lanaren mozorroarekin agertu izan dira jatorrizko obrak. Lemak *Lettres d'amour de religieuse portugaise*, Guilleraguesen fizkio-lana jartzen du adibidetzat.

Amaitzeko, itzulpen eskasak daude, jatorrizko testua ondo ez ulertzeagatik edota behar bezala birsortzen ez jakiteagatik -jatorrizkoaren erregistroa, mezua eta asmoa errespetatuz- mezuari iruzur egiten diotenak.

3.1.2.2. Euskal Herriko onomastikaren adibideak. Diglosiaren ondorioak.

Ikaslearekin eztabaidatu nahi izan nuen gai hau, euskara eta euskal komunitateari lotutako ikasketetan soziolinguistikari zor zaion garrantzia eman behar zaiolakoan bainago. Horretarako, bi ikuspuntutatik helduko diot azalpenari: batetik fonologia eta grafiaren aldetik, eta bestetik, alor semantikotik.

Batetik, fonema eta grafia sistemen artean sortutako nahasmena dela eta, itzultzaileek euskarazko antroponimo eta toponimoak paperera eramatean (eta hori gehien-gehienetan erdararen bidez egin da euskararen historian) eragindako grafia aldetiko forma anitzak zein hiperzuzenketak daude.

Lehenengoaren adibide dira: *Errazti/Errasti*, *Ariztegi/Aristegui*, *Azula/Asula*, *Zavala/Sabala/Zabala*, *Etxeberri/Echeverry*, *Artze/Arze/Arce* eta beste asko eta asko antroponimoen artean, baina, fenomeno bera gertatzen da toponimoekin ere, *Ermua/Hermua*, esate baterako. Aukera aparta hau, inondik inora, ikaslearekin euskal grafiaren bateratzeaz berba egiteko.

Bigarren taldean jarri ditugu hiperzuzenketaren ondorioz gure onomastikan dauzkagun forma bikoitzak, esaterako, *Sarraoa/Zarraoa*¹⁰, *Sarriugarte/Zarriugarte*... Horrelakoetan, jatorrizko txistukari igurzkari apikaria (s grafiaz islatua), zenbaitetan, z grafiarekin islatu zuten administrazioetako langileek, eta denborarekin eta euskararen higitze prozesuaren kariatz, gaztelaniazko “zeta” soinua bezala ahoskatzen heldu da. Hiperzuzenketa honen prozesua honakoa litzateke: hasteko, ikasleari azaldu zaio mendebaldeko euskalkian ez dela bereizketarik egiten txistukari igurzkarien eta afrikatuen apikari eta

¹⁰ GOIRIA MENDIOLEA, N. (2013ko maiatzaren 23an), *Gerra sasoiaren abizena z-taz jarri zieten*, in <https://ahotsak.eus> [linean], [kontsulta 2021eko urriaren 5ean]. Berreskuratua: <https://ahotsak.eus/zaldibar/pasarteak/zal-010-025/>

lepokariaren artean (*sorra* eta *zorra* modu bakarrean ahoskatzen ditu mendebaldeko hiztunak, apikariaren aldeko neutralizazioa eraginez, baita *atso* eta *atzo*, afrikarietan lepokaria hobetsiz). Horri gehitu behar zaio euskaraz gaztelaniazko “zeta” soinua ez egotea.

Eta puntu honetan euskaldun ez den fede oneko gizakiak zalantza ager lezake eta pentsatu eremu honetan (mendebaldean) ziharduten erdal itzultzaile elebarrak euskaldunek gaztelaniazko s eta z fonemak berdin ahoskatzen zituztela ikusirik (zein alde dago bada *cazar* eta *casar*-en artean?), ez zeukatela irizpiderik erregistro eta agiri ofizialetan izenok nola idatzi erabakitzeke. Eta hortaz, pentsa liteke, iritzira egiten zutela grafiaren hautaketa, batzuetan *Sarrionandia* eta bestetan *Zarrionandia* aukeratuz. Ez da iritzi horretakoa, ostera, Torrealdei (2000b):

“Euskararen presentzia publikoa arras ezabatu nahi izan zuen frankismoak euskal lurren okupazioaren lehen unetik. Grafiari dagokionez, hainbat etxe eta toki publikotako izenak aldatu egin behar izan ziren. Jon Etxaidek luze kontatzen ditu kontu horiek, nola k guztiak kendu zituzten, tx nola bihurtu behar izan zen ch sistematikoki. Telefónicaren gida ere goitik behera arakatu zuten eta aldatu grafiaren aldetik.

Liburuetan ere r eta l azentudunak, adibidez, arazo izan ziren oso berandu arte. Rr eta ll idatzi behar zen erremedio gabe. Euskaltzaindiari aurea eta gaina hartu zion zentsurak. Bi idazkerek bide librea zuten Euskaltzaindiaren arabera.

Bi euskara bereizten ditu frankismoak: bata «espainola», eta «separatista» bestea. Lehenengoa herritarra da, tradizionala, benetakoa, ahozko tradizioetik hurbil dago, bertsolariena da. Euskara hau ortografia espainolean idatzitakoa da, betikoan. Euskara garbia eta gardena (*puro y limpio*) da hau, neologismoz eta separatismoz kutsatu gabea.

Bigarren hizkuntza, aldiz, artifiziala da, Arana Goirik asmatua, ulertezina, neologismoz betea, laborategikoa. Ortografia ere berria da, «separatista» (sic). Euskara hau, nahiz eta Eusko Jaurjaritzak onartua izan, edo agian horrexegatik, ez du onartzen zentsurak. Nahiz eta Euskaltzaindiak ere onartu, berdin dio. Azken batean, garai hartako hizkuntza normalizatua borrokatzen zuen frankismoak, separatista omen zelako”.

Praktika horrek, jakina, pertsona edo leku izen horien azterketa etimologikoa zailduko du eta euskal onomastikaren normalizazioaren bidean harri koxkorrak ezarri.

Onomastikaren idazkera baturako irizpideak ezartzen Euskaltzaindiak hainbeste urteko lana eta beste horrenbesteko orri idazteko beharra izan duela eta oraindik ere baduela ikasleari argi utzi zitaion eta arestian aipatutakoak adibide txiki batzuk baino ez direla.

Bestetik, arlo semantikoari heldu genion. Ezagunak dira gure gizataldean euskaraz ez dakiten hiztunak nagusitzeak (kopuruaren zein prestigioaren ikuspegitik) eragin dituen toponimoen itzulpen okerrak. Eibarko *Errainaren* etxearen kasua ezaguna da gure herrian. Noizbait errainarenean bizi izan ei zen norbait eta auskalo bera ala besteren bat bizilekuari horrela deitzen hasi eta izen hori geratu zitaion etxeari. Gaztelaniazko hiztun elebarrak egindako itzulpena, aitzitik, *la casa de la reina* izan zen (*erreginarena*), eta hortik berriz euskaratu, *Kasalarreina* toponimo berria sortuz. Iruñean ere badute horrelakorik. Koldo Izagirrek dioskunez, *La cuesta de la rubia* izenez ezagutzen omen da Nafarroako hiriburuko leku bat; jatorrizko toponimoa *Harrobia* omen zen, ordea, bertan egon zen harrobia zelarik izenaren oinarrian zirauena. Urtetxo batzuk badira horrelako ipuin mordo bat kontatu zizkiguna Koldo Izagirrek Elgetako liburutegiko aretora bildu gineno, arratsalde pasa ahaztezina niretzat, gogoan iltzatuta geratu zaizkidan adibidez josia.

3.1.3. Itzulpen estrategiak

Loyorengana itzuliko gara berriz ere eta hark itzulpen estrategiak bi talde nagusitan sailkatzen dituela ikusiko dugu ikaslearekin batera.

Zuzeneko itzulpena:

SHko testuan emandako mezua erraz pasa dezakegu xede-testura, mezu horren egiturak berdinak direlako bi hizkuntzetan. Teknika honen barruan aipatzekoak dira: transferentzia edo mailegua, kalkoa eta sinonimia.

Zeharkako itzulpena:

Jatorrizko testuaren hizkuntzako egiturak xede-testuan erabiliko den hizkuntzan erabili ezin direnean erabiltzen den teknika da hau. Kasu honetan, honako itzulpen-prozedurak erabil ditzakegu: transposizioa, modulazioa, baliokidetasuna, zabalkuntza, egokitzapena, azalpena, ezabapena eta konpentsazioa.

3.2. Bigarren zatia: praktikaldia

Une honetatik aurrera, Loyo Cabezudoren *Itzulpen-estrategiak. Irizpide nagusiak* (2013) artikulua zehaztutako estrategia batzuk ekarriko ditugu mahai gainera eta haiei lotuta, arestian aipatutako *euskaraz kontrolatuz* interneteko orritik hartutako ariketak nola aplikatu ditugun eskolan erakutsiko dut, eta jardunetik atera ditugun ikaskuntzak eta ondorioak ere aipatuko ditut.

3.2.1. Sinonimia

Estrategia hau erabiliko da SHko hitzak XHko baliokide zehatzik ez duenean edo naturala ez denean, eta testuaren osotasunari begira informazio galerarik ez dakarrenean.

Esate baterako: *El alumno, además de estudiante, debe ser un elemento activo en el aula.*

Euskara idatzian, berez, *alumno/a* eta *estudiante* modu berean esaten ditugu: *ikasle*. Baina, kasu honetan, diskurtsoak ez digu hitz berbera erabiltzen uzten. Horregatik, lehenengo tokian *ikasle* izena eta bigarren tokian *ikastun* adjektiboa erabiltzeko aukera egiten du ariketa honen egileak.

Ikasleak, ikastuna izateaz gain, elementu aktibo izan behar du gelan.

Polonieraz egindako itzulpenean, gaztelaniazko zein euskarazko adjektiboentzat (*ikastun/ estudiante*) ordainik ezean, ikasleak aditz-izenaren hautua egin zuen eta *uczenie się* (*ikastea*) aukeratu zuen *oprócz* preposizioarekin batera *ikasteaz gainen* esanahia lukeen sintagmaren bidez sorburuko mezuaren ideia bera transmitituz.

Uczeń, oprócz (samego) uczenia się, musi być również aktywny w klasie.

Adibide honetan, beraz, ikasi dugu, sinonimorik ezean, beste egitura bat (kasuan preposiziodun sintagma) erabiltzea badagoela, mezuari estuki helduz. Gainera, ikasleak mezua hobeto zehazteko asmoz, elementu bat gehitu du, *samego* (*bere kabuz, modu autonomoan* ideia azpimarratzeko).

Beste adibide bat: *Servicio de Atención Primaria*

Atención hitzak ez du euskaraz zuzeneko ordainik eta horregatik sinonimo baten beharra dago aurrekoa itzuli ahal izateko, *laguntza*, alegia. Baina, mezua ulergarri izateko nahikoa izango ez delakoan, *osasan* hitza gehitu zaio, esparru semantikoa mugatzearren. Horrela bada:

Lehen Osasun Laguntzako Zerbitzua

Ikasleak ere *pomoc* (*laguntza*) hobetsi du, hor ez du zalantzarik egin. Baina, zein eratako laguntza den zehazki adieraztea, hori gehiago kosta zaio. Izan ere, gogoan izan behar izan du kalkoak ez direla sarri zuzenak eta bere senari entzun eta kontuan izan, bere ama hizkuntzan, polonieran, ez dela zenbatzaile ordinala erabiltzen ideia hau itzultzeko –hain zuzen ere, *pierwsza pomoc* esamoldearen esanahia beste bat da, *lehen sorospena*, alegia-. Hori dela eta, bi aukera izan ditu esku artean: *pomoc dorażna* ala *pomoc naśla*.

Dorażna izenondoaren esanahia, batez ere, denborari lotutakoa da, *behin-behinekkoa*, *noizbehinkakoa*, *unean unekoa*... esan nahi du.

Naśla bat-batekotasunarekin lotuta dago, premiazkotasunetik edo larritasunetik hurbilago dago aurrekoa baino.

Hortaz, *pomoc dorażna* izan da egindako hautua.

Ez dugu ahaztu, irakurlea, hau ez zela jatorrizko itzulpen ariketak erakutsi nahi zuena, baina poloniera tartean sartzean, fokua aldatu da, esan nahi baita, kontzeptu hau polonierara itzultzean sortzen den zailtasuna ez dela gaztelania eta euskararen artean zegoena, hau da, nola zehaztu oinarrizko zerbitzu hori osasunarekin lotuta dagoela. Izan ere, lehen ariketan *atención* terminoak euskaraz zehaztu beharra zeukan, polonieraz aldiz ez, *pomocek* (*laguntza*) atzetik *dorażna* adjektiboa badarama, hiztun guztiek dakitelako *laguntza* horrek *osasan laguntza* esan nahi duela.

3.2.2. Kalkoa

Teknika hau jatorrizko testuko funtsezko adierazpide edo egitura bat xede-hizkuntzan ez dagoenean erabiltzen da. Loyok adierazpide kalkoa (“[...] xede-testuko egitura errespetatuz, ordurarte hizkuntza horretan ezezaguna zen adierazpen-modua asmatzen da.”) eta egitura-kalkoa (“[...] xede-testuan orduarte ez zegoen egitura sintaktikoa sortzean datza.”) baino aipatu ez arren, kalkoak beste hainbat motatakoak ere izan daitezke, semantikoak esate baterako, edota hitz berria sortzeko erabilitako prozedura kopiatzen dutenak.

Ez dugu ahaztu behar kalkoa baliabide bat dela eta ez dagoela zertan baztertu. Hizkuntzaren dinamikak berak erakusten du zein onartzen den eta zein baztertzen.

Ikus ditzagun guk landutako adibideak:

Movimientos feministas/Mugimendu feministak/Ruchy feministyczne

Adibide honetan baliokidetasun osoa dago hiru hizkuntzen artean. Hiruretan darabilte izen eta adjektiboz osatutako sintagma bat eta hiruretan *mugimendu* izendatzen da ekimena, kalko semantikoa gertatuz.

Bestetan terminoak morfemaz morfema itzultzen dira beste hizkuntza batera. Hona hemen adibide bat.

Desconocimiento/Ezjakintasun(a)/Niewiedza.

Hiru hizkuntzak jarraitzen zaizkio eratorpenaren bideari, erroaren esanahia ezeztatzen duen aurrizkia gehituz. Gaztelaniaz *des-*, euskaraz *ez-* eta polonieraz *nie-*.

Baina, hau ez da beti gertatzen. Begiratu zer gertatzen den gaztelaniazko “*indignidad*” hitz eratorriarekin. Euskaraz ezin da **ezduintasun* bezala itzuli, baizik eta *duintasun(ik)* eza edota *duintasun falta* lirateke ordain zuzenak. Eta polonieraz ere, *nie-* aurrizkia ez da aukera egokiena, *niegodności* ez delako berba hain natural eta arrunta. Ikasleak *brak godności*ren aldeko aukera egin zuen, hitzez hitz “duintasunik gabe”, partitibo eta guzti.

Kalko sintaktikoak ere gerta daitezke, esaterako hau:

Seis menos dos igual a cuatro/Sei ken bi berdin lau/Sześć minus dwa równa się cztery.

Hiru hizkuntzetan hitzez hitzekoa hau ere.

Eta beste honetan ere egituren arteko korrespondentzia dago gaztelania eta polonieraren artean, baina ez euskararekin. Hona:

Lekeitio se encuentra en la costa. Lekeitio znajduje się na wybrzeżu. Polonieraz kalko zuzena da. Euskaraz, aldiz, ez. * *Lekeitio kostaldean aurkitzen da (sic).* *Lekeitio kostaldean dago.*

Ondoko beste adibide guztietan gaztelaniazko jatorrizko mezuei egindako kalkoak okerrak dira zein euskaraz, zein polonieraz:

*Tiene más edad. * Adin gehiago du (sic). *Ma więcej wiek (sic).* Itzulpen zuzenak *Zaharragoa/nagusiagoa da* euskaraz eta *jest starszy/a* dira polonieraz, gaztelaniaz es *mayor* esamoldearen pareko. Polonieraz *Ma więcej lat* ere espresio zuzena da, euskaraz (*urte gehiago du*), ordea, ez nago hain seguru gizakumeez hitz egiterakoan hain zuzena den. Horrelakoetan hiztun jatorrei galdetu behar diegu eta idatzizko iturri fidagarrietan oinarritu. Hori izan da beste ikaskuntza bat.

Ha aumentado en cinco euros. Ezin dugu oraingoan ere kalko sintaktikoa egin, ez euskaraz, ez polonieraz ez duelako bat egiten hizkuntzaren berezko izaerarekin. Ez dira, bada, zuzenak * *Bost eurotan garestitu da (sic).* * *Zdrożało w pięć euro (sic).* Euskaraz *Bost euro garestiagoa da* eta polonieraz *Zdrożało o pięć euro* dira itzulpen egokiak. Dena dela, polonierazko egitura sintaktikoa gaztelaniazkotik oso hurrean dago. Adizlagun mota aldatzen da, baina egitura sintaktikoari eusten zaio.

*Echar una mano. * Esku bat bota (sic). *Rzucić rękę (sic).* Esango genuke euskaraz mezu hori transmititzeko erabil dezakegun bakarra *lagundu* aditza dela. Polonieraz ere, *pomóc* aditza erabiliko dugu, nahiz eta badagoen gaztelaniazkoaren tankerako esapide bat *Podać (pomocną) dłoń*, hitzez hitz, *esku ahurra eman*.

*Celebrar una reunión. * Bilera bat ospatu (sic). *Świętować spotkanie (sic).* Ezin dira kalko horiek erabili ez hizkuntza batean, ez bestean. Euskaraz *bildu* edo *bilera egin* esango dugu eta polonieraz, *spotykać się* edo *organizować spotkanie*.

*Hay que mojarse. *Busti egin behar da (sic). *Trzeba (z)moknąć (sic).* Euskaraz *Zirt edo zart egin behar da!*, *erabakia hartu beharra dago* erabil genitzake ideia hori itzultzeko. Polonieraz *Trzeba dojść do porozumienia/kompromisuren* aldeko hautua egin du ikasleak.

Atal honi amaiera emateko, Polonian oso ezaguna den kalko bat ekarriko dugu gogora, mihigaitztoek, gainera, politikari ezagun bati egozten dioten itzulpen okerra.

Polonieraz idatzi bat amaitzeko eta aurrez eskerrak emateko erabiltzen den formula oso sustraitua “*z góry dziękuję*” da eta eskaera bat egin ondoren, agurtzeko erabiltzen da. Aitzitik, “*góry*” hitzak “*mendiak*”

ere esan nahi du. Hortaz, ingelesez ari zelarik, honakoa bota omen zuen zorizaiztokoak: *Thank you from the mountains!*

3.2.3. Modulazioa

[...] teknika hau erabiltzean, mezuaren kontzeptu-oinarria aldatzen da, hau da, ikuspuntua aldatzen da. Itzulpen prozedura hau hitzez hitzekoa eta transposizioa erabilita, gramatikaren aldetik esaldi zuzena lortu arren, hizkuntzaren senaren kontrako denean erabili behar da.” Loyo (2013)

¡No metas ruido!/ Ez egin zaratarik!/Nie hałasuj! Nie ró b hałas!

Esamolde hau itzultzeko euskaraz eta polonieraz, bietan, “egin” aditza behar dugu, ezin baita “zarata sartu” gure ikuspuntutik.

Hurrengo bi adibideetan gaztelaniak eta polonierak ezezkotasunetik, ukapenetik ikusiko dituzte egoerok, euskarak, aldiz, baieztaenetik.

No tiene nada de tonto./ Nie jest głupi/a. Jest niegłupi/a./ Argi-argia da hori, gero! Zera baino argiagoa da hori! Zer den argia!

No llueve/ Nie pada. Jeszcze nie pada./ Ateri dago.

Eta beste honetan ere bat datoz gaztelania eta poloniera, baina ez euskara.

No mayor del 50%/ Nie więcej niż 50%/ %50 baino gutxiago

Hurrengo adibidean *-papel pintado/ horma-papera /tapeta-* poloniera eta euskara bat datoz garrantzia duena horma estaltzen duen zerbait adierazi nahi dugula, gaztelaniak margotuta dagoela azpimarratzen duen artean.

Azkenik, euskararen aktibotasuna beste bi hizkuntzen pasibotasunerako joerarekin alderatuko dugu bi adibide hauekin:

Será privado de sueldo./ Zostanie (Będzie) pozbawiony/a pensji (wynagrodzenia)./ Soldata kenduko zaio.

El jefe de servicio será nombrado por el director gerente./ Szef obsługi zostanie nominowany przez dyrektora generalnego./ Zuzendari-kudeatzaileak izendatuko du zerbitzu-burua.

3.2.4. Atsotitzak

Loyok berez-berez aipatzen ez duen arren, ikaslearentzat aberasgarria izango zelakoan jorratu genuen esparru hau eta konturatu askotan bat egiten dutela bi hizkuntzek.

“Zartaginak lapikoari (esan zion)” ezagunak, esaterako, badu bere parekoa polonieraz, hots, “Przyganiał kociół garnkowi”, “eltzeak lapikoari” aldaeraren bidez.

Gezurra hanka motza dela esaten du poloniarrek halaber (*Kłamstwo ma krótkie nogi*).

“Urte berri, asmo berri”ren ideia adierazteko *Nowy rok, nowy/a ja* esaten dute Polonian (*urte berri, ni berri*).

Etxean ikusia, umeak ikasia edo *Nolako zura, halako ezpala* erako atsotitzak ugariak dira polonieraz, adibidez: *Jaki ojciec, taki syn. Jaka matka, taka córka.* (*Nolako aita, halako semea. Nolako ama, halako*

alaba) edo *Niedaleko pada jabłko od jabłoni* (*Sagarra ez da sagar-arbolatik urruti erortzen*) eta *Czego się Jaś nie nauczy, tego Jan nie będzie umiał* (*Juanek erakusten ez diona, ezingo du Juanitok egiten jakin*).

Lanaren ingurukoak:

Nahi bada jan, egin behar da lan. Poloniarrek diotena da: *Bez pracy nie ma kołaczy* (*lanik gabe, afaririk ez*).

Adiskidetasuna eta afektibitatea adierazteko:

Adiskide onekin, orduak labur. *Czas szybko mija w miłym* (*dobrym*) *towarzystwie*. Denbora azkar pasatzen dela, alegia, lagunarte onean.

Gaur hitza eman, bihar haizeak eraman atsotitzari polonierak ematen dion esamoldeari ez zaio soinutasuna eta umorea falta: *Obiecanki-cacanki*.

3.2.5. Hizkera sexista ekiditeko formulak

Alor honen azterketa ere neuk gehitu nahi izan dut; nahiz eta gure artean 2008tik dugun gidaliburu bat euskararen erabilera sexista ekiditeko¹¹, Polonian oso gai berria eta polemika handia dakarrena baita.

Hizkera sexistarik ez erabiltzeko aholku batzuek bi hizkuntzetarako balio dute, beste batzuk espezifikokoak dira, hizkuntza bakoitzaren ezaugarrien arabera moldatutakoak.

Euskaraz idazterakoan *gizon* hitza *gizonezkoa* adierazteko erabiliko da. Bi sexuetako pertsonak izendatzeko, *pertsona*, *lagun*, *gizaki* edo *jende* idatziko da. Oro har mintzatzeko, *-lari* eta *-ri* atzizkiak erabiliko dira, eta ez *-gizon*: esaterako, *legelari*, eta ez *legegizon*. Era berean jokatu da genero marka duten beste atzizkiekin: *gizon-emakumez aritzeko*, *iruindar* erabiliko da, eta ez *iruinseme*¹².

Tradiziorik gabeko hitzetan, *-sa* atzizkia ez da erabiliko: esaterako, *aktore* idatziko da, eta ez *aktorea**; *dantzari*, eta ez *dantzarisa**.

Beste hizkuntzetatik itzultzeko orduan, egoki euskaratzeko informazioa bildu beharra dago. Adibidez, jakin behar da *children*, *enfants*, *hijos* edo *dzieci* zer diren zehazki: seme-alabak, semeak edo alabak. Informazio hori biltzea ezinezkoa bazaigu, *seme-alabak* idatziko dugu, eta txikiak badira, *haur* eta *ume* ere erabil dezakegu¹³. Modu berean jokatu da euskaraz hitz elkartuak erabiltzen diren beste kasuetan ere: *neska-mutikoak*, *errege-erreginak*, *mais-maistrak*, *jaun-andreak*, *andre-gizonak*, *neba-arrebak*...

Polonieraz badira erabilera bitxiak eta berritzaileak alor honetan. Ikasleak azaldu zuen *król* (*errege*) bientzat, *gizon-emakumeentzat*, erabiltzen dela, baina forma femeninoak (*królowa*) erregeren emazteaz

¹¹ BARQUÍN LÓPEZ, A. (2008), *Euskararen erabilera ez sexista*, Emakunde, Gasteiz.

¹² Eztatanda beste bat den arren, ikaslearen oharra gehitu nahi nuke hemen, alegia, “*synowie i córki Poznania*” (*Posnaniako seme-alabak*) adierazpideak handikeria kutsua izan dezakeela, konnotazio epikoa, gertaera historiko esanguratsuekin lotura. *Poznanianka*, *Poznaniak* (*posnaniar* hitzaren forma femeninoa eta maskulinoa) jentilizioen erabilera arruntagoa litzateke. Bestetik, jentilizioak osatzeko modu anitz daude Polonian eta ez dira erregularrak.

¹³ Polonieraz *dzieci* seme-alaba helduekin ere erabil daiteke, nahiz eta “*umeak/haurrak*” esanahia izan. Euskaraz ere badaukagu horrela erabiltzerik testuinguru berean, hau da amaren edo aitaren ahotik esaten denean eta norbere seme-alabez diharduenean.

baino ez diharduela¹⁴. Nik ikusi dudanaren arabera, aldiz, gehienetan *królowa* da kasu hauetan erabiltzen dena eta sexu eta generoen arteko berdintasunaren aldeko arau berritzailatzat joko nuke nik ikasleak proposatutakoa. Euskararen kasuan ere egin ahalgo litzatekeena, bestalde.

Bestelakoetan, esan nahi baita, sexu-generoa markatua denean, euskararentzat baliagarri diren arau berak erabiltzea aholkatuko genuke, bikoizketa edota plural inklusiboak, alegia. Horrela bada, *neska-mutilak*en baliokideak *dziewczyny i chłopcy*, *dzieci* eta *młodzież* dira besteren artean, *anai-arrebak* esateko *rodzeństwo* daukagu eta *gurasoak* izendatzeko *rodzice*. Irakasleak erakoak itzultzeko ere bikoizketa erabili beharko da ikusgarritasunaren eta inklusibitatearen izenean: *nauczyciele i nauczycielki*.

Agurretan ekidin beharrekoa da *Szanowni Państwo!*, gaztelaniazko *Distinguidos señores* eta euskarazko *Jaun agurgarriak!* formulen parekoa eta andreak eta gizonak agurtu: *Szanowne Panie i Szanowni Państwo*. Geroz eta arruntagoak diren praktikak dira hauek, gizar-tean dagoen eztabaida biziaren isla.

Aipatutako kasuez gain, Berria eta EITBko estilo liburuetan argitaratutako hainbat arauri buruz mintzatu ginen, beste batzuen artean estereotipo sexistei lotutako adjektiboak ez ditugula erabiliko ezin hizkuntzatan, familia loturen aipamen alferrikakorik ez dela egingo edota emakumez mintzatzean ez dagoela genero aldetik markatua den hitzik zer erabili.

4. Amaitzeko

Sarreran esan bezala, artikulua honetan adierazitakoa ikastaroan landutakoaren laburpen eta egokitzapen bat da. Eskola saioetan egindako sinonimoen bilaketa ariketen emaitzak eta kalko, esamolde eta atsotitzen itzulpenak modu grafikoan sistematizatuta ere badaude. Gainera, hainbat moldetako testu laburren itzulpenak ere gauzatu ziren -biografiak, azalpenak, olerkiak- bien bitartean itzulpen estrategia anitzez hausnarketa egin eta praktikan jarri.

Poloniera eta euskararen arteko harremanari dagokionean eta estrategia eta erronkei gogozkiolarik, lerro hauek aprobetxatu nahi ditut azpimarratzeko Posnaniako Adam Mickiewicz Unibertsitateko Euskara Irakurletzak duela 20 urtetik itzulpen gintzaren alde egindako lana eta esparru honetan irekitako bidea, gaur gaurkoz bitarteko hizkuntzarik erabili gabe itzultzen diharduten ia-ia guztiek (Katarzyna Sosnowskak ez) bertan ekin baitzioten bide honi. Ondotik EIZIE eta Etxepare Institutuak eman diote jarraipena ekinbideari, euskal idazleekin lantegiak antolatuz eta poloniera eta euskararen arteko itzulpen zuzena sustatuz. Eta zuzeneko itzulpen gintzarena azpimarratzen dugu, beharrezkoa delako bitartekorik, iragazirik gabe, euskaldunaren begi eta ahotik artez itzultzea gure literatura munduan benetan ezagutuko bada.

Orain arteko ahaleginak gogoan, balio beza norabide berean egindako azken urrats honek kateari beste maila bat gehitzeko eta etorkizuneko egitasmoak hauspatzeko.

¹⁴ Ikasleak bi adibide hauek jarri ditu: *Król Jadwiga* eta *Król Anna*. Jadwiga Andegaweńska 1384an izendatu zuten Poloniako Erresumako errege eta Anna Jagiellonka XVI. mendearen lehen erdialdean izan zen Bohemiako, Hungariako eta Alemaniako erromatarren errege.

5. Bibliografia

5.1. Bibliografia orokorra

- ASKOREN ARTEAN (2016), *EITBren estilo liburua*, EHU-ETB. Non: EITB [linean] [Kontsulta 2021eko otsailaren 23an]. Berreskuratua: <https://www.eitb.eus/multimedia/corporativo/documentos/EITB-Estilo-Liburua-20160929.pdf>
- Atsotitzak: *euskararen altxorra* (2021). Non: Ikasbil [linean]. [Kontsulta 2021eko otsailaren 23an]. Berreskuratua: <https://www.ikasbil.eus/eu/artikuloaren-fitxa?articleId=27946699>
- BARQUÍN LÓPEZ, A. (2008), *Euskararen erabilera ez sexista*, Emakunde, Gasteiz.
- Berria estilo liburua*. Non: [linean] [Kontsulta 2021eko otsailaren 23an], <https://www.berria.eus/estiloliburua/>
- Bost minutuko ikastaroa: Hizkera sexista, Naizen, eta Aitziber Garmendia* (2021eko otsailaren 16a). Non: Mintzanet [linean]. [Kontsulta 2021eko otsailaren 23an]. Berreskuratua: <http://mintzanet.net/bost-minutuko-ikastaroa-hizkera-sexista-naizen-eta-aitziber-garmendia/>
- EIZIE, *Nor da Nor euskal itzulpen gintzaren datu basea* [linean] [sarritan kontsultatua], <http://nordanor.eus>.
- GOIRIA MENDIOLEA, N. (2013ko maiatzaren 23an), *Gerra sasoiaren abizena z-taz jarri zieten*, in <https://ahotsak.eus> [linean], [kontsulta 2021eko urriaren 5ean]. Berreskuratua: <https://ahotsak.eus/zaldibar/pasarteak/zal-010-025/>
- Itzulpen-teknikak* (2019). Non: Euskaraz kontrolatuz [linean] [kontsulta 2021eko otsailaren 23an]. Berreskuratua: <https://euskarazkontrolatuz.blogspot.com/search/label/ITZULPEN-TEKNIKAK?m=0>
- LEMA, P., *Traductor, ¿traidor?* (2017ko apirilaren 17a). Non: <https://lematraductores.com> [linean]. [Kontsulta 2021eko irailaren 23an]. Berreskuratua: <https://www.lematraductores.com/blog/traductor-traidor/>
- LOYO CABEZUDO, J. (2013), *Itzulpen-estrategiak irizpide nagusiak*, in www.ehu.es › files [linean], [kontsulta 2021eko otsailaren 23an]. Berreskuratua: http://www.ehu.es/ehusfera/garalex/files/2013/04/itzulpen-estrategiak_irizpide-nagusiak_Joana-Loyo.pdf
- SAWICKI P. (2009), “Trydzieści lat, parę chwil- nie tylko w Krakowie. Glosa do portretu Jadwigi”, *Studia iberystyczne*, 8, *Księga Pamiątkowa dedykowana Profesor Jadwidze Koniecznej-Twardzikowej* (29-38 or.), Krakovia.
- TORREALDAI, J.M., (2000a), “Zentsura ez du frankismoak asmatu”, *Artaziak*. Non: [susa-literatura.eus](http://www.susa-literatura.eus) [linean], [kontsulta 2021eko irailaren 23an]. Berreskuratuta: <http://www.susa-literatura.eus/liburuak/best08005>
- TORREALDAI, J.M., (2000b), “Grafía española”, *Artaziak*. Non: [susa-literatura.eus](http://www.susa-literatura.eus) [linean], [kontsulta 2021eko urriaren 12an]. Berreskuratuta: <http://www.susa-literatura.eus/liburuak/best08039>
- (T)SA *atzikia*. Non: EHULKUren aholkuak ordena alfabetikoan [linean]. [Kontsulta 2021eko otsailaren 23an]. Berreskuratua: <https://www.ehu.es/eu/web/euskara/ehulku-aurkibidea>

5.2. Aipatutako literatur-lanak: jatorrizkoak eta itzulpenak

- ALDEKOA, I. (1993). *Euskal ipuinen antologia bat*, Irun, Alberdania. Itz. SZOFER, A., ZAWISZEWSKI, A. (2000), *Pewnej nocy w parku: opowiadania baskijskie*, Poznań, Rebis (Salamandra).
- APALAUZA A.,; KOŁACZEK S. (2019). *Kristo fusilarekin*, Iruñea, Katakarak. Jatorrizkoa: KAPUŚCIŃSKI, R. (1975). *Chrystus z karabinem na ramieniu*, Nowe Książki.
- APALAUZA A.,; KOŁACZEK S. (2020), *Erabili goldea hilen hezurren gainetik*, Iruñea, Katakarak. Jatorrizkoa: TOKARCZUK, O. (2009). *Prowadź swój pług przez kości umarłych*, Krakovia, Wydawnictwo Literackie.

- ARREGI, R. (1998). *Kartografia*, Irun, Alberdania. Itz. STAWICKA-PIRECKA, B. (2016). *Kartografia*. Wrocław, Biuro Festiwalowe Impart. Bitarteko hizkuntza: gaztelania.
- ASKOREN ARTEAN, (2011). *Kontu kontari, Opowiadania Baskijskie*, Wielichowo, Tipi. Testua online https://eizie.eus/eu/jarduerak/lit_itzul_sustapena/polonia_euskaraz/13denakbatera.pdf
- ATXAGA, B. (1988). *Obabakoak*, Donostia, Erein. Itz. KASPRZYCKI A. ET AL. (1992). *Obabakoak. W poszukiwaniu ostatniego słowa* (zattia), Krakovia, Oficyna Literacka.
- ATXAGA, B. (1993). *Gizona bere bakardadean*, Iruñea, Pamiela. Itz. SOSNOWSKA, K. (2019). *Samotny mężczyzna*, Wrocław, Książkowe klimaty.
- ATXAGA, B. (2003). *Soinujolearen semea*, Iruñea, Pamiela.
- BONOWICZ, W. (2016). *Droga nie ma końca: antologia wierszowanej bajki polskiej*; GAZDA, M., *Bidea ez da amaitzen: Poloniako bertso-ipuinen antologia*, Wrocław, Biuro Festiwalowe IMPART 2016.
- CANO, H. (2001). *Norbait dabil sute eskaileran*, Zarautz, Susa. Itz. STAWICKA-PIRECKA, B. (2016). *Któs chodzi po drabinie przeciwpożarowej*, Wrocław, Biuro Festiwalowe Impart 2016. Zeharka: bitarteko hizkuntza, gaztelania.
- CZERNY, M. (2011). *Podróż z ojcem*, Senez 42, EIZIE, Zarautz, Itxaropena. Jatorrizkoa: ITURBE, A.; INTXAURRAGA A. (2009). *Aitarekin bidaian*, HIKA teatroa.
- CZERNY, M. (2014). *Korapiloak deskorapilatzen lantegia*; J.K. IGERABIDE Senez 45, EIZIE, Zarautz, Itxaropena.
- ETXEPARE, B. (1545). *Linguae Vasconum Primitiae*, Bordele. Itz. KRAJEWSKA, D. (2015). *Linguae Vasconum Primitiae*, Bilbo-Gasteiz, Euskaltzaindia-Eusko Legebiltzarra.
- GAZDA, M. (2016). *Bidea ez da amaitzen: Poloniako bertso-ipuinen antologia*, Wrocław, Biuro Festiwalowe IMPART 2016. Jatorrizkoa: BONOWICZ, W. (2016) *Droga nie ma końca: antologia wierszowanej bajki polskiej*, Wrocław, Biuro Festiwalowe IMPART 2016.
- GAZDA, M. (2016). *I ja tam bylam... pstryk!*, Wrocław, WRO, Polonia. Jatorrizkoa: LABANDIBAR, G. (2016). *Hala bazan... klixk!*, Wrocław, WRO, Polonia.
- IGERABIDE, J.K. (2014). *Korapiloak deskorapilatzen*; CZERNY, M., Senez 45, EIZIE, Donostia.
- ITURBE, A.; INTXAURRAGA A. (2009). *Aitarekin bidaian*, HIKA teatroa; CZERNY, M. (2011). *Podróż z ojcem*, Senez 42, EIZIE, Zarautz, Itxaropena.
- ITURBE, A. (1995). *Lehenago zen berandu*, Alberdania. Itz. SZOFER, A.; ZAWISZEWSKI, A. (2000). *Pewnej nocy w parku: opowiadania baskijskie*, Poznań, Rebis (Salamandra).
- JAIO, K. (2016). *The mirror, Best European Fiction (2017)*, Dalkey Archive Press, Illinois; (2022). *No soy yo*, Ediciones Destino. Itz. JANKOWIAK, A. (2019). *Lustro, Opowiadanie 9 (35-40 or.)*, Wrocław.
- JAKA, A. (2013). *Polonia helmuga. Lehen geltokia. Senez 44.*
- JANISZEWSKA J. (2008). *Irapuato: wszechobecna złowrogość*, Senez 36, EIZIE, Zarautz, Itxaropena. Jatorrizkoa: MONTOIA, X. (2008). *Irapuato: makurkeria nagusi*, Senez 36, EIZIE, Zarautz, Itxaropena.
- JANKOWIAK, A. (2019). *Lustro, Opowiadanie 9 (35-40 or.)*, Wrocław. Jatorrizkoa: JAIO, K. (2016). *The mirror, Best European Fiction (2017)*, Dalkey Archive Press, Illinois; (2022). *No soy yo*, Ediciones Destino.
- KAPUŚCIŃSKI, R. (1975). *Chrystus z karabinem na ramieniu*, Nowe Książki. Itz. APALAUZA A., KOŁACZEK S. (2019), *Kristo fusilarekin*, Iruñea, Katakarak.
- KASPRZYCKI A. et al. (1992). *Obabakoak. W poszukiwaniu ostatniego słowa* (zattia), Krakovia, Oficyna Literacka.
- KOŁACZEK S., ANDERS J. eta JANKOWIAK A., *Bronba eta bestea* in JAKA, A. (2013). *Polonia helmuga. Lehen geltokia. Senez 44.* Jatorrizkoa: WOJTYSZEK M. (1975). *Bromba i inni*, Varsovia, Nasza księgarnia.

- KUROSZ, W. (2012). *Słoń o ptasim sercu*, Poznań, Zysk i S-ka Wydawnictwo. Jatorrizkoa: LANDA, M. (2001). *Elefante txori-bihotza*, Anaya.
- KRAJEWSKA, D. (2015). *Linguae Vasconum Primitiae*, Bilbo-Gasteiz, Euskaltzaindia-Eusko Legebiltzarra. Jatorrizkoa: ETXEPARE, B. (1545). *Linguae Vasconum Primitiae*, Bordele.
- LABANDIBAR, G. (2016). *Hala bazan... klixk!*, itz. GAZDA, M., *I ja tam bylam... pstryk!*, Wrocław, WRO, Polonia. (Donostia 2016 eta Wrocław 2016 Europako Kultur Hiriburutzen egitasmoen barruan argitaraturiko liburuxka).
- LANDA, M. (2001). *Elefante txori-bihotza*, Anaya. Itz. KUROSZ, W. (2012). *Słoń o ptasim sercu*, Posnania, Zysk i S-ka Wydawnictwo. Bitarteko hizkuntza: gaztelania.
- MONTOIA, X. (2008). Irapuato: makurkeria nagusi; JANISZEWSKA J., Irapuato: wszechobecna złowrogość, *Senez 36*, EIZIE, Zarautz, Itxaropena.
- MUÑOZ, J. (2005). *Hausturak*; ZAWISZEWSKI, A., Coś się skończyło, *Senez 29*, EIZIE, Zarautz, Itxaropena.
- SARRIONANDIA, J. (1983). *Narrazioak*, Elkar. Itz. SZOFER, A., ZAWISZEWSKI, A. (2000). *Pewnej nocy w parku: opowiadania baskijskie*, Poznań, Rebis (Salamandra).
- SOSNOWSKA, K. (2019). *Samotny mężczyzna*, Wrocław, Książkowe klimaty. Jatorrizkoa: ATXAGA, B. (1993). *Gizona bere bakardadean*, Iruñea, Pamiela.
- SZOFER, A.; ZAWISZEWSKI, A. (2000). *Pewnej nocy w parku: opowiadania baskijskie*, Poznań, Rebis (Salamandra). Jatorrizkoa: ALDEKOA, I. (1993). *Euskal ipuinen antologia bat*, Irun, Alberdania; ITURBE, A. (1995). *Lehenago zen berandu*, Alberdania; SARRIONANDIA, J. (1983). *Narrazioak*, Elkar.
- STAWICKA-PIRECKA, B. (2016). *Kartografia*. Wrocław, Biuro Festiwalowe Impart. Jatorrizkoa: ARREGI, R. (1998). *Kartografia*, Irun, Alberdania. Bitarteko hizkuntza: gaztelania.
- STAWICKA-PIRECKA, B. (2016). *Któs chodzi po drabinie przeciwpożarowej*, Wrocław, Biuro Festiwalowe Impart 2016. Jatorrizkoa: CANO, H. (2001). *Norbait dabil sute eskaileran*, Zarautz, Susa. Bitarteko hizkuntza: gaztelania.
- TOKARCZUK, O. (2009). *Prowadź swój pług przez kości umarłych*, Krakovia, Wydawnictwo Literackie. Itz. APALAUZA A., KOŁACZEK S. (2020), *Erabili goldea hilen hezurren gainetik*, Iruñea, Katakarak.
- URRETABIZKAIA, A. (1998). *Koaderno gorria*, Donostia, Erein. Itz. SOSNOWSKA, K. (2016). *Czerwony zeszyt (fragment)*, Donostia, EIZIE.
- WOJTYSZEK M. (1975). *Bromba i inni*, Varsovia, Nasza księgarnia. Itz. Kołaczek S., Anders J. eta Jankowiak A., Amaia Donés eta Aiora Jakaren zuzenketekin *Bronba eta bestek* in JAKA, A. (2013), Polonia helmuga. Lehen geltokia. *Senez 44*.
- ZAWISZEWSKI, A. (2005). Coś się skończyło, *Senez 29*, EIZIE, Zarautz, Itxaropena. Jatorrizkoa: MUÑOZ, J., (2005). *Hausturak*, *Senez 29*, EIZIE, Zarautz, Itxaropena.